



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2016ICGO0005

Eguna: 2016-07-11

Ordua: 09:30 – **09:50**

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- Jesus M^a Santos Anabitarte..... EAJ-PNV
- Zorione Etxezarraga Ortuondo..... EAJ-PNV
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... EHBildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz..... EHBildu

Bertaratu ez direnak

- Mikel Durán Gonzalo..... Euskadiko Sozialistak

Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIAK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2016ko ekainaren 20 eta 22ko akten onarpena.	1	Aprobación de las actas de 20 y 22 de junio de 2016.
2017ko herriko jaia izendatzea.	2	Designación día festivo local 2017.
Astigarraga-Zarkumendegi bidegorriaren obra-kontratuaren aldaketa: alegazioen erantzuna eta espedientearen ebazpena.	3	Modificación del contrato de obras del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi: respuesta a las alegaciones y resolución del expediente.
Kultura, euskara eta jaien arloetako diru laguntzak esleitzea.	4	Adjudicación de ayudas del área de cultura, euskara y fiestas.
Xagu Xar eta Udalaren arteko hitzarmena onartzea.	5	Aprobación del convenio entre Xagu Xar y el Ayuntamiento
Informazio, galdera eta eskariak.	6	Información, ruegos y preguntas



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Esan-eginak eta erabakiak

Aho batez premiazko aitortpena onartu ondoren, Kirol arloko laguntzen esleipena gai zerrendan sartzea erabaki da.

1.- 2016ko ekainaren 20 eta 22ko akten onarpena.

Zorione zinegotzia ekainaren 20ko batzordean egon ez zenez, abstenitu egin da. Gainerako bertaratuek, akta aho batez onartu dute.

Ione zinegotzia ekainaren 22ko batzordean egon ez zenez, abstenitu egin da. Gainerako bertaratuek, akta aho batez onartu dute.

2.- 2017ko herriko jaia izendatzea.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta herriko jai eguna Santa Ana eguna (uztailak 26) izendatzea proposatu du.

Alkateak beti egun horretan izan ohi dela eta bere adostasuna azaldu du. Gaineratuz uztailaren 24a zubia izan daitekeela, eta Andoni zinegotziak erantzun dio hori udal egutegian onartu behar dela.

Bestalde, herriko dendariak zer egingo duten inguruan hitz egin da, eta hori bakoitzak erabaki behar duela adierazi, Eroslek – adibidez – itxi egiten duela komentatuz.

Jarraian, bozkatzera ekin zaio, eta bertaratuek, aho batez onartu dute, Santa Ana eguna (uztailak 26) herriko jai eguna izendatzea.

3.- Astigarraga-Zarkumendegi bidegorriaren obra-kontratuaren aldaketa: alegazioen erantzuna eta espedientearen ebazpena.

Construcciones Moyua enpresaren alegazioa, horren inguruan zuzendaritza teknikoak egindako txosten teknikoa eta udal idazkariaren ebazpen-proposamena aurkeztu dira.

Previa declaración de urgencia aprobada por unanimidad, se acuerda incluir en el orden del día la adjudicación de las ayudas del área de deportes.

1.- Aprobación de las actas de 20 y 22 de junio de 2016.

Dado que la concejal Zorione no estuvo presente en la junta del 20 de junio, se ha abstenido, y el resto de los presentes la han aprobado por unanimidad.

Dado que la concejal Ione no estuvo presente en la junta del 22 de junio, se ha abstenido, y el resto de los presentes la han aprobado por unanimidad.

2.- Designación día festivo local 2017.

Toma la palabra el concejal Andoni y propone como día festivo el día de Santa Ana (26 de julio).

El alcalde señala que siempre se suele hacer ese día y que le parece bien. Y añade que el día 24 puede ser puente, a lo que el concejal Andoni le responde que eso hay que aprobarlo en el calendario del Ayuntamiento.

Por otro lado, se ha hablado sobre lo que va a hacer los comerciantes, y tras señalarse que eso lo decide cada uno, se comenta que Erosle – por ejemplo – suelo cerrar.

A continuación se procede a la votación, y los presentes acuerda por unanimidad designar el día de Santa Ana (26 de julio) día festivo local.

3.- Modificación del contrato de obras del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi: respuesta a las alegaciones y resolución del expediente.

Se presenta la alegación de construcciones Moyua, el informe técnico que al respecto ha redactado la dirección técnica, así como la



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Azken horretan honako hau proposatzen da:

Lehena.- Jarraian adierazten diren alderdietan Construcciones Moyuak aurkeztutako alegazioa onartzea:

- Horma-zuloen (mechinal) neurketa-aldeak (2. alegazioa)
- Hormigoizko kuneten neurketa-aldeak (2. alegazioa).
- Inposten metro lineala (2. alegazioa)
- TPC mota eta 160 mm diametroko tutuen metro lineala (2. alegazioa).
- Lan-programa berri bat idazteko beharra eta obra osagarrien obraren gauzaketarekin koordinatzeko lanaldi epe berri bat onartzea (3. alegazioa)

Bigarrena.- Lehenengo atalean jasotzen ez diren gainerako alegazioak ezestea, proiektua idatzi duen taldeak 2016ko uztailaren 4an egindako txostenean oinarrituta; eta txosten horren kopia bat bidaltzea.

Hirugarrena.- Astigarraga-Zarkumendegi bidegorria eraikitzeo obra kontratuaren aldaketa espediente onartzea, lizitazioa berri bat egitea beharrezkoa ez delako, espediente administratiboaren txosten juridikoetan adierazi den moduan.

Laugarrena.- Construcciones Moyuari ebazpena jakinaraztea, ohartaraziz Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak 219.2 artikuluan araututakoaren arabera, kontratu berri bat sinatu beharko dela 156 artikuluari jarraiki.

Bosgarrena.- Kontratu-aldaketa espedientea bukatutzat ematea, eta 2016ko apirilaren 25eko udal osoko bilkurak onartutako obra eteteko erabakia altxatzea.

propuesta de resolución de la secretaria accidental:

En ese último se propone lo siguiente:

Primero.- Estimar las alegaciones presentadas por Construcciones Moyua en los siguientes aspectos

- Diferencias de mediciones de Mechisnales (alegación 2ª)
- Diferencias de mediciones de cunetas de hormigón (alegación 2ª)
- MI de imposta (alegación 2ª)
- MI de tubo TPC 160 mm (alegación 2ª)

- la necesidad de redactar un nuevo programa de trabajos y aprobación de un nuevo plazo límite de ejecución de obra en coordinación con los trabajos de obras complementarias (Alegación 3ª)

Segundo.- Desestimar el resto de alegaciones no incluidas en el apartado primero, en base al informe del equipo redactor de fecha 4 de julio de 2016, acordándose la remisión de una copia del mismo..

Tercero.- Aprobar el expediente de modificación del contrato de obras de construcción del bidegorri de Astigarraga-Zarkumendegi, siendo improcedente la convocatoria de una nueva licitación, en virtud de lo establecido en los informes jurídicos que obran en el expediente administrativo.

Cuarto.- Notificar a Construcciones Moyua la presente resolución, significándole que de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 219.2 del TRLCSP, deberá de formalizarse un nuevo contrato conforme a lo dispuesto en el artículo 156 de dicha disposición legal.

Quinta.- Dar por concluido el procedimiento del expediente de modificación, y, levantar la suspensión de las obras acordada en sesión plenaria de 25 de abril de 2016.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian ebazpen-proposamena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

A continuación se procede a votar la propuesta de resolución, aprobándose por unanimidad.

4.- Kultura, euskara eta jaien arloetako diru laguntzak esleitzea.

4.- Adjudicación de ayudas del área de cultura, euskara y fiestas.

Alkateak kultura saileko irizpena aurkeztu du, departamenduko 2000 eurotik gorako laguntza hauek onartuak izan daitezten:

El alcalde presenta el dictamen del departamento de cultura para la aprobación de las subvenciones de más de 2000 euros:

10700.481.01.334.10 2016 kontu sailetik

- Astigar, 2.140 euro, 2016ko Astigarraga aldizkaria argitaratzeko.
- Norberto Almandoz musika eskola, 3.678 euro, musika eguna, ipuin musikatua eta entzun-igarria egitasmorako.
- Zipotza: 2.240 euro, kaldereroen konpartsa antolatzeko.
- Txirriskla: 2.450 euro, Iruñeko erraldoien kalejira antolatzeko.

De la partida 10700.481.01.334.10 2016

- Astigar, 2.140 euros, para publicar la revista Astigarraga 2016.
- Norberto Almandoz musika eskola, 3.678 euros, para la musika eguna, los cuentos musicales y la actividad “entzun-igarria”
- Zipotza: 2.240 euros, para organizar la comparsa de caldereros.
- Txirriskla: 2.450 euros, para organizar la comparsa de los gigantes de Iruña.

1 0600.481.01.325.00 2016 kontu sailetik

- Herri eskola: 2.645 euro irakasleentzako Telp ikastaroa eta hizkuntz erabileraren inguruko formazio eta sentsibilizazio tailerra antolatzeko.
- Xaguxar: 5.355 euro haur eta gazteentzako euskarazko jarduerak antolatzeko (urteko ekintzak, kanpaldia eta 25 urteurreneko euskarazko ikuskizun eta jolasak).
- Musika eskola: 3.000 euro, musika udalekuak eta zine mutua euskarazko azpitoluekin antolatzeko.

De la partida 1 0600.481.01.325.00 2016

- Herri eskola: 2.645 euros para organizar para los alumnos el cursillo de Telp y el taller de sensibilización y formación sobre la utilización del idioma.
- Xaguxar: 5.355 euros para organizar actividades en euskara para niños y jóvenes (actividades anuales, campamento y juegos y espectáculo en euskara del 25 aniversario)
- Musika eskola: 3.000 euros, para organizar las colonias musicales y cine mudo con subtítulos en euskara.

10700.481.05.338.00 2016 kontu sailetik

- Gazte Asanblada: 6.500 euro, Santos jaietan karpa eta musika ekipoa alokatzeko.
- Goldea: 2.962 euro, Santa Ana eguneko joaldun, erakusketa, trikitilari eta bertsolarietarako.
- Goldea: 3.000 euro, San Isidro eguna

De la partida 10700.481.05.338.00 2016

- Gazte Asanblada: 6.500 euros, para alquilar la carpa y el equipo de sonido de Santos jaiak.
- Goldea: 2.962 euros, para los “joaldun”, la exposición, los trikitilari y bertsolaris del día Santa Ana.
- Goldea: 3.000 euros, para organizar el día



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

antolatzeko.

- Danak bat Ergobiako kultur elkartea: 6.000 euro, Ergobiako jaiak antolatzeko.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

5.- Xagu Xar eta Udalaren arteko hitzarmena onartzea.

Alkateak kultura saileko irizpena aurkeztu du onartua izan dadin:

Xaguxar elkartearekin 2016. urtean ere hitzarmena sinatu eta horren baitan udal aurrekontuko kontu sailean aurreikusitako 12.000 euroko laguntza ematea.

Zorione zinegotziak lone zinegotziari hitzarmenarekin ados dauden galdetu dio, eta horrek erantzun urterakoaren antzerakoa dela eta urtero egiten dituzten jarduerak jaso direla.

Jarraian, lone zinegotziak – elkarteko partaide delako – batzordetik atera da, eta bertaratuen artean gaia aztertu ondoren botatzera ekin diote, aho batez onartu delarik.

6.- Kirol arloko laguntzak esleitzea

Kirol arloko 3 irizpen aurkeztu dira, 2000 eurotik gorako honako laguntzak onartzeko eskatuz:

- Denak Bat Elkarteari, Ergobia auzoko jaietako kirol jarduerak antolatzeko 5.398,72 euroko diru laguntza ematea.
- Goldea Elkarteari Santa Ana eguneko herri kirolen antolaketarako 4.410 euroko diru laguntza ematea.
- Goldea Elkarteari San Isidro eguneko herri kirolen antolaketagatik 2.689,66 euroko diru laguntza ematea.

de San Isidro

- Danak bat Ergobiako kultur elkartea: 6.000 euros, para organizar la fiestas de Ergobia.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

5.- Aprobación del convenio entre Xagu Xar y el Ayuntamiento.

El alcalde presenta el siguiente dictamen del Departamento de Euskara para su aprobación:

Firmar, también en el año 2016, el convenio con la asociación Xaguxar, y en consecuencia, conceder la ayuda de 12.000 euros previstas en el presupuesto municipal.

La Concejala Zorione le pregunta a la concejala lone si están de acuerdo con el convenio, y ésta le contesta que es similar al de otros años, y que se han recogido las actividades que llevar a cabo a lo largo del año.

A continuación la concejala lone – dado que es miembro de la asociación – sale de la Junta y tras analizar el tema entre los presentes, se procede a su votación, aprobándose por unanimidad.

6.- Adjudicación de las ayudas del área de Deportes.

Se presentan tres dictámenes de la comisión de deportes para aprobar las subvenciones de más de 2000 euros:

- Conceder a Danak Bat elkartea la subvención de 5.398,72 euros para la organización de las actividades deportivas de las fiestas del barrio de Ergobia.
- Conceder a Goldea Elkartea la subvención de 4410 euros para la organización de las herri kirolak del día de Santa Ana.
- Conceder a Goldea Elkartea la subvención de 2.689,66 euros para la organización de las herri kirolak del día de San Isidro



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Andoni zinegotziak batzorde informatzailean alde bozkatu zutela eta oraingoan ere horrela egingo dutela adierazi du.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

7.- Informazioa, galderak eta eskariak.

a.- Kultur etxeko lorategiko zati baten desjabetza.

Udal idazkariak azaldu du Nahitaezko Jabekokentzeetarako Gipuzkoako Lurralde-epaimahaiak ebatzi duela aurkeztutako errekursoak, eta ez duela onartu ez guk aurkeztutako ez fundazioarena. Eta orain, 2 hilabeteko epea dagoela auzi-errekurtoa aurkezteko.

b.- Kode Etikoa eta fitxaketa.

Andoni zinegotziak kode etikoa sinatzeko epea bukatu dela eta zinegotzi liberatuak fitxatzen noiz hasiko diren galdetu du.

Alkateak, fitxaketa irailetik aurrera egingo dela azaldu dio.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

El concejal Andoni señala que en la comisión informativa votaron a favor, y que ahora también lo van a hacer.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

7.- Información, ruegos y preguntas.

a.- Expropiación de parte de los jardines de la casa de cultura.

La secretaria explica que el Jurado Territorial de Expropiación Forzosa de Gipuzkoa ya ha resuelto los recursos, y se han rechazado tanto el presentado por el ayuntamiento como por la fundación. Y señala que ahora se dispone del plazo de 2 meses para presentar recurso contencioso-administrativo.

b.- Código Ético y fichaje.

El concejal Andoni señala que ha finalizado el plazo para firmar el código ético y pregunta cuando van a empezar a fichar los concejales delegados.

El alcalde le señala que ficharan de septiembre en adelante.

Astigarragan, 2016ko uztailaren 11n.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria